



EUSKAL GOBERNUAREN ERAKUNDETZEA ETA AGINTE POLITIKOA, XIX MENDEAN (1800-1877)

Sabin Arana Goiri Bilboko barrutian, 1898ko irailaren 11ean, diputatu probintziala aukeratu izan ondoren, Bilboko plaza barrian kokaturik zegoen egoitzan, azaroaren 2an, Diputazioko sustapenerako batzordean ondoko ekimena aurkeztu zuen: *“Proyecto para la constitución de un Consejo Regional o Junta Superior de representantes de Araba, Gipuzkoa, Nabarra y Bizcaya”*. 1898eko urtean, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako diputatu probintzialen artean egin ziren, bost bilera behintzat. Ohikoak izaten jarraitu zuten elkarren arteko bileren erakundetzea eskatu zuen. Baina elkarren arteko bilerak aurrerantzean debekatuak izango zirela aitzakia aipatuz, gehiengoaren ezetza jaso zuen.

XIX mendean Euskal gobernu edo gobernantza komuna 1800tik 1877.arte egonkortu zen. Euskal gobernuaren erakundetzearen garrantzia eta autogobernu esperientziaz jabetzea, premiazkoa da. 1877.tik elkarren arteko bilerek jarraipena izan zuten baina itun ekonomikora

mugaturik. 1936an eratu zen Eusko Jaurilaritza, 1936ko autonomia Estatutuko legean eta gero 1979ko Gernikako estatutuan oinarriturik.

Baina 1800tik Araba, Bizkaia eta Gipuzkoko ordezkari politikoen arteko gobernu komunaren esperientzia politikoa bere horretan azpimarratzea eta ulertzea premiazkoa dela deritzot. Horrez gainera, ondoren azalduko dudan bezala, euskal nortasun politikoaren aldarrikapen berriak ere bai, bereziki, autonomia kontzeptu berriaren esanahia ere 1852an jadanik ageri eta definitua izan zelarik, independentzia eta erabateko autogobernu kontzeptuari loturik. Beraz XIX mendearen azken hamarkadan agertutakoak ez ziren bat batean ageri, aurrekari diren iturrietatik edan zituzten¹.

1. Agirreazkuenaga Joseba, *Euskal herritarren burujabetza (1793-1919: Euskal herritarren autogobernu auziaren bilakaeraz: Foruen erakundetzetik Autonomia Estatutura*. Irún, Alberdania, 2012. 324 orr.

JOSEBA AGIRREAZKUENAGA

UPV-EHU, HISTORIA
GARAIKIDEKO KATEDRADUNA



Iraultza liberalaren zikloa, Ameriketako Estatu Batuetako independentziaz abiatu (1776) eta Frantziako iraultzarekin jarraituz (1789) gatazkatsua eta bortizkeriaz beteriko garaia izan zen. Euskal Herrian ere, 1876arte belaunaldi guztiek ezagutu zuten gerra eta gerraren ondorioz heriotzak, hondamendiak eta erbestera-zeak. Euskal gizartearen baitan, indarrean eta jardunean zeuden Batzar Nagusietako euskal gobernuen aurka jo zuten hasieran karlistek, karlistadak abiatzeko.

1793ko urriaren 30ean, Bilbon, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Batzar Nagusietako ordezkariak 4 egunez bilduta egon ondoren, erabaki zuten gobernu komun bat antolatzea, urtero batzartzea eta helburutzat zuten *“mejorar la Constitución del País y consolidar la Hermandad que desean perpetuar”*.

Espainiako erresumak Frantziako Errepublikaren aurka gerra bizturik zegoelarik, hiru herrialdeak Frantziako errepublikanoei aurre egiteko prestakuntzan ere ari ziren, Foru konstituzioaren arabera euskal lurraldearen defentsaren ardura zutelako. Gerra amaitu ondoren, 1799an Gipuzkoan zegoen Errege ordezkariak Gipuzkoa eta Arabako ordezkarien arteko bilerak debekatu behar zirela agindu zuen. “Gaztelako kontseiluak” ere euskal gobernu komunaren aurkako erabakia hartu zuen. Baina 1800ko uztailaren 16an Carlos IV erregeak, erret agindua argitaratu zuen: *“En consideración a que desde tiempo inmemorial se han juntado Comisionados*

de las Provincias de Alaba y Guipuzcoa y del Señorío de Vizcaya a conferir y tratar en asuntos del Real Servicio y de interés común de las tres Comunidades...ha resuelto S.M. que las tres expresadas Comunidades puedan juntarse en los términos referidos”. Mariano Luis Urquijo, behin behineko Estatu idazkari nagusiaren eraginez, euskal gobernuaren egitasmoa, garaiko legedian oinarriturik eratu zen. 1810ean ere administrazio Frantzesak, ere “Bizkaiko gobernu”, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoarako, hiriburua Donostian zegoela, sortu zuen.

Euskal Batzar Nagusiek, 1814an herrialdeko gobernu aukeratzen zuten eta aldi berean ordezkariak 1800tik, 1877.arte, 193 akta komunak gutxienez sinatu eta hitzartu zituzten. Izaera federaleko euskal gobernuak, “Irurac Bat” izenpean, aginte eta administrazio publikoa sendoa antolatu, sortu eta garatu zuen.

Ricardo Becerro de Bengoak parlamentari errepublikanoa arabarra izan zenak, *El libro de Alava* izenekoan, 1876an, idatzi zuen: *“Cada una de estas provincias constituye dentro de la federación o fraternidad euskara una especie de estado independiente y autonómico y las tres están unidas en la identidad de la sangre y de la ley formando el Irurac bat de nuestro original y primitivo pueblo. Las tres provincias hermanas tienen, pues, fuertes y estrechos lazos de unión y se reúnen en Conferencias, cuando la gravedad e importancia de los asuntos*

2. Gai honetan sakontzeko, ikus: Agirreazkuenaga Joseba, *La articulación político institucional de Vasconia: Actas de las Conferencias firmadas por los representantes de Alaba, Bizkaia, Gipuzkoa y eventualmente de Navarra (1775-1936)* Bilbao, Diputación de Bizkaia, 1995, 2 liburuki, 1.723 orr.



comunes a todas lo exigen". G. Desdevises du Dezert historialari eta zuzenbidean aditua zen akademiko frantsesak, 1897an "l'État vascongade, triple et un" bezala definitzen zuen, hau da euskal estatu hirukoitza eta bateratua, euskal gobernu izaera baterakoia eta federala aldi berean.

Beraz, XIX mendean barrena, gihartu eta egonkortu zen euskal gizartearen, liberalismoaren ildoan, euskal aginte politikoa. 1839ko urteaz geroztik. Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Batzar Nagusiek, herriaren jatorrizko ordezkariak eta agintaritzak ordezkatzeko zutela, aldarrikatu zuten eta euskal abertzaletasun berritzailea, abertzaletasun forala izendatu zena, egonkortu eta zabaldu zen.

Euskal gobernu izaera hori 1839tik 1877. arte indartu egin zen. Adibidez, 1844an Pedro Egañak idatzi zuen liberal eta karlisten arteko diferentziak gainditu beharra zegoela eta "*cuando un pueblo está amenazado de perder su nacionalidad, es mal ciudadano el que predica la división*"³. 1850ko Bizkaiko Batzar Nagusietara joan ziren Araba eta Gipuzkoako ordezkariak eta adierazi zuten euskal nazionalitatea ezbaian zegoela etorkizunari begira. Urte berean Ramon Ortiz de Zaratek artikuluak argitaratu zituen foruen

bidezko erakundearen alde, ideologia guztien ginetik euskal izaera komuna ere aldarrikatzen zuen⁴.

Pedro Novia de Salcedok, tradizionalista ildokoa zena, euskal herrialdeen agintaritzaren estatu izaera defendatzen zuen, 1829an idatzi eta azkenean 1851ean argitaratu zuen liburuaren laugarren liburukian: "*Cual esta sea en las Provincias Vascongadas lo hemos demostrado ya, así como también su carácter de estados separados e independientes, y con esto sólo está plenamente probado el derecho que asiste a todos los pueblos para la observancia de sus fueros y leyes*"⁵.

Victor Luis Gaminde, liberal progresisten buruzagiak 1852an argitaratu zuen: "*Las provincias Bascongadas se hallan puestas en este mismo rango. Son y fueron estados no de hoy, sino durante el transcurso de siglos, y si la nacionalidad radica esencialmente en el ejercicio de ciertas formas propias y en la celebración de tratados a que no son admitidas las que no sean potencias, las tres provincias hermanas lo son incontestablemente*"(...)» *La ley de 25 de Octubre de 1839, forman el contrato social entre Vizcaya y las Castillas*⁶.

3. Vázquez de Prada, Mercedes. *Negociaciones sobre los Fueros entre Vizcaya y el poder central. 1839-1877*. Bilbao, 1984, orr. 462.

4. Ortiz de Zarate, Ramón. *Consejos al pueblo vascongado sobre el sistema que debe seguirse en la defensa de los Fueros*.- Vitoria, 1850

5. Novia de Salcedo, Pedro. *Defensa histórica, legislativa y económica del Señorío de Vizcaya y provincias de Álava y Guipúzcoa, contra las Noticias históricas de las mismas que publicó D. Juan Antonio Llorente, y el informe de la Junta de reformas de abusos de la real hacienda en las tres Provincias Bascongadas*. Bilbao, 1852, t. IV.

6. Gaminde, Víctor Luis. *Impugnación al proyecto llamado Arreglo de los Fueros de las provincias Bascongadas presentado por la Comisión de Gobierno a las de las mismas provincias*. Bilbao, 1852, pp. 14-15 y 5.



Baina ikuspuntu juridiko eta politiko batetik, garaiko Espainiako erresumako agintarien aurrean, Pedro Egaña eta Blas Lopezek, 1852an, ondoko printzipioetan laburbildu zituzten euskal konstituzio politikoaren oinarriak: “1.- *Administración del país por el país, entendida en toda su pureza y practicada con absoluta independencia de otro poder extraño(sic)* 2.- *Franquicia de quintas y contribuciones onerosas* 3.- *Libertad mercantil* 4.- *Para defender y salvar contra toda invasión injusta...la Constitución vascongada tiene un medio eficacísimo: El pase foral...Sin el pase foral la autonomía vascongada que todos dicen querer respetar, es una formula vana sujeta a los caprichos del poder*”.

Eta ikuspegi honek prentsan ere eragina zuen. Bilbon 1856ko ekainaren 26an, *Boletín de Comercio* agerkaria Espainiako gobernuak debekatu eta gero, Juan Eustakio Delmasek egunkari berri bat asmatu zuen ***Irurac Bat*** izenburupean. Lehen zenbakiko egitasmoan adierazten zuen gazteleraz. *Adoptamos por divisa de nuestro periódico el lema más popular y significativo que se conoce en la tierra solariega: Irurac Bat: Tres estados en uno, como lo son las nobilísimas provincias que constituyen la antiquísima Confederación vasca*” (...) “*su habla, sus costumbres el tipo de su hermosa y pura raza, conservada sin mezcla de advenediza extranjera... El Irurac Bat pertenece a su partido, al partido que vive encarnado en la tierra que abarca su nombre al partido vascongado, más claro,*

al Partido Fuerista”. Euskaraz ere ageri da lehen editoriala eta argiago adierazten du egitasmoa, erabateko burujabetzaren aldekoa. Euskarazko itzulpena Manuel Barandika, buruzagi politikoa, Diputazioko idazkari nagusia, parlamentaria 1876an izan zenak egingo zuelakoan nago, garai horretan Batzar Nagusietan ere itzultzaile lanak egiten zituelako:

“*Honelan izango gara sendoak, honelan ezingo gaitu inok goitu, ez bada, gehiago aitatu Bizkaian ez baltzik ez zuri-rik ez besterik. Izan gaiten guztiok bat eta daukagun ezkerre geure izatea, geure legeak, geure gobernuak geure berbertarañokoa, geure usadioa ta senitarteak, ezagutu daigun ez gaituzala inok obeto gobernuak geure geurok baino; eta zorakeria handia izango litzatekeala jarrea arrotz erbestekoen eskuetan, menturaz, biar edo etzi euren mendean imini gurako gaituezanenetan*”.

Gipuzkoako Diputazioan, 1856an Eugenio Azkuek “*Irurac bat. Unión de las tres provincias vascongadas*” izeneko margoa pintatu zuen. Eta hurrengo hamarkadan, 1864an, Laurac bat izeneko egitasmoa abiatu zen Nafarroako gobernuaren ekimenez.

Bilbon 1860ko hamarkadan 2 egunkarien arteko lehia biztu zen: *Irurac bat*, ikuspegi liberalekoa, *Euscalduna* bestetik. 1861etik erlijio katolikoa politikagintzaren lehian sartu zen, Italiako erresuma batu berria sortu zenean bereziki. Aita sanduak bere agintaritzako lurraldeak galdu zituen

7. *Breves apuntes en defensa de las libertades vascongadas. Escrito leído a la llamada Comisión de arreglo de Fueros nombrada por el Señor Don Juan Bravo Murillo en 1852 por el Excmo. Señor Don Pedro Egaña.* Bilbao, Imprenta J.E. Delmas. 1870. p. 157.



eta Erroman frantsesen armadaren babespean irauten zuen. Katoliko antiliberalak ez zuten onartzen aita sanduaren agintaritzaren politikokoaren ezabatzea bere lurraldean ez eta Estatu bat bere aginduen aurka joatea. Espainiako erresumak ez zuen Italiako erresuma berriaren aitortzarik erakutsi nahi eta Espainiako Isabel II erreginarekin agintaritzan zatiketa gertatzen ari zen.

Bestalde 1862an Gasteizeko elizbarrutia hiru herrialdeentzat sortu zen, Espainiako eliz buruzagien iritzia aurka.

1864KO BATZAR NAGUSIAK GERNIKAN. “JAUNGOICOA ETA FORUAC”

Euskal abertzaletasun forala, noiz uztartu zen erlijio katolikoarekin?

1864ko ekainaren 15-17an, Espainiako Senatuan foruen bidezko erakundetzea zela eta, eztabaida sutua biztu zen eta Pedro Egañak euskal nazionalitateari buruzko aipamena egin zuen. Ondoren, uztailan, Bizkaiko Batzar Nagusiak Gernikan bildu ziren eta Abandoko ordezkaria Santiago Arana izan zen, hurrengo urtean jaioko zen Sabinen aita. 1864ko Gernikako Batzar Nagusietan, Miguel Loredok⁸, Portugaleteko ordezkariak, hau adierazi zuen bere hizketaldian: “*Son dos palabras sagradas que subyugan el ánimo y que*

están grabadas en el corazón de los hijos de estas provincias; son dos palabras que hacen el encanto de nuestras almas; (...) ¡JAUNGOICOA ETA FORUAC!”. Erlijioa politikan sartu zen, foru tradizioan ordura arte gertatu ez zena. Aita sanduaren agintaritzaren eta katolikotasun liberalaren aurkako leloa zen.

Batzar nagusietan ere, 1864ko uztailaren 24an, hiru diputatuk zera eskatu zioten Bizkaiko Foru Diputazioari, euskal hizkuntzari buruzko katedra sor zezala Bizkaiko Ikastetxean, arrazoi honetan oinarrituta: “*Allí donde concluye la lengua de los pueblos concluye su nacionalidad*”.

1860ko hamarkadan, jatorrizko independentziaren ideia, Batzar Nagusien subiranotasuna aldarrikatzeko abiapuntua zen. Juan Eustaquio Delmasek Bizkaia-
ren jatorrizko independentzia defendatu zuen Gasteizko Institutuko irakaslea zen Eduardo Orodearekin izandako eztabaidan⁹. Ikuspuntu katoliko tradizionalistatik, Aristides Artiñanok karlismoaren alde egiteko kontakizun berria asmatu zuen¹⁰.

Laburbilduz, XIX. mendearan erdialdean, euskal elite politikokoaren baitan euskal abertzaletasun politikokoaren definizioa eta erakunde foralen defentsan egonkorturik zegoen eta euskal naziotasunaren diskurtsoa ere agerikoa zena, 1877tik aurrera nabarmendu zen.

8. García-Borreguero, Pablo. *Miguel Loreda Rola*. Portugalete, Portugaleteko Liburutegi Digitala, “El mareómetro”. Portugalete. Ikus ere: <http://mareometro.blogspot.com/2019/07/recogido-de-la-prensa-miguel-loredo-en.html>. 1864ko Batzar Nagusietako beste argazki bat agiri da.

9. Delmas, Juan Eustaquio. *Refutación a los artículos que contra la independencia del Señorío de Vizcaya ha publicado en el Irurac bat el Sr. D. Eduardo de Orodea e Ibarra*. Bilbao, 1868.

10. A.A. (Aristides, Artiñano). *Jaungoicoa eta Foruac. La causa vascongada ante la revolución española*. Vitoria, 1869.



EUSKAL GOBERNUAREN EZABATZEA 1877AN

1877ko maiatzaren 5ean lehen-dabizi Bizkaiko Batzar Nagusiak eta gobernua ezabatu zituen Espainiako presidentea izan zen A.Canovas del Castilok agindu baten bidez. Ondoren Araba eta Gipuzkoako Batzar Nagusiak desegin zituen eta beraz euskal gobernua. Giro horretan, F. Pi i Margall errepublikako presidente ohiak, *Las nacionalidades* liburuan idatzi zuen: *A poco que se combinen aquí los diversos criterios para la teoría de las nacionalidades, tengo para mí que se habría de estar por la independencia de los vascos. ¿La consentirá España?»*¹¹ Juan Tellitu, Bizkaiko diputatu ohiak, 1877an: «*se le reconozca el incuestionable derecho de formar entre el Pirineo y el Ebro, un Estado independiente, a la manera de una pequeña Suiza*»...¹²

1880ko hamarkadan hutsune eta galera sakon baten sentsazioa sakon gihartu zen euskal populazioan eta bereziki Bilboaldean. Foruzale batzuk, Euskalerria elkarte sortu zuten eta *La Union Vasco-navarra* egunkariak erakundeen itzulera eskatzen zuten.

1882an, Bizkaiko Diputazio probintzialak erakusketa antolatu zuen eta bertan Anselmo Guineak aurkeztu zuen pinturak jaso zuen sari nagusia: “Jaun Zuria jurando defender la independencia de Vizcaya”.

Beraz, euskal gobernuaren ezabatzearen ondoren 1877an, independentziaren aldarria 1880ko politikagintzan eta gizartean giharturik zegoen, foruzaletasunaren diskurtsu politikoaren baitan, aginte politikoaren berreskuratzea helburutzat harturik. Hamarkada berean ere, Katalunian ere berebiziko proposamenak eta eztabaidak abiatu ziren.

11. Pi y Margall, Francisco. *Las nacionalidades*, (1877). Madrid, Centro de Estudios Constitucionales, 1986, orr. 62-63.

12. Bizkaiko Artxibo Forala, Régimen Foral, Reg. 15.



JAUN ZURIA JURANDO DEFENDER LA INDEPENDENCIA DE BIZKAIA. ANSELMO DE GUINEA, 1882. JUNTAS GENERALES DE BIZKAIA.

